

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZALDI-JARDUERETARAKO OLGETA-JARDUERA OSAGARRIAK EGITEA, ETA AUTONOMIA PERTSONALA MUGATUA DUTEN PERTSONETARA EGOKITZEA (ZEHARKAKOA)	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF1502		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zaldiz egiteko ibilbideetan pertsonak gidatzea.	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ingurune naturalean zaldiz kirol-jarduera egitea.	Iraupena	80
	Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean (zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 (olgeta-jarduerak zehazteari eta autonomia pertsonala oso mugatua duten pertsonetara egokitzeari dagokionez) eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Parte-hartzaileen, ingurunearen eta eskuragarri dauden baliabideen ezaugarrietara egokitutako olgeta-jarduerak hautatzea, ingurune naturalean zaldiz gidatzeko jarduerak dinamizatzeko osagarri gisa.
- EI1.1 Olgeta-jarduera identifikatzea eta haren ezaugarriak zehaztea, pertsonaren eta egungo gizartearen garapenean eta orekan duen papera baloratuz.
- EI1.2 Olgeta-metodologiarako joera positiboa izatea, eta jolasetan desinhibizioz parte hartzea.
- EI1.3 Kasu praktikoa batean, ingurune naturalean zaldiz gidatzeko programa bat osatzen duten olgeta-jarduerak zer ezaugarri izan behar dituzten zehaztea.
- EI1.4 Olgeta-jarduerak bilatzea hainbat informazio-iturritan, haien ezaugarriak aztertzea, zenbateko aplikagarritasuna duten identifikatzea, eta sailkatzea.
- EI1.5 Hainbat motatako jolasak gauzatzeko, haien ezaugarriak aztertzea, zenbateko aplikagarritasuna duten identifikatzea, sailkatzea, eta erregistratzea.
- EI1.6 Adin eta helburu jakin baterako jolasak hautatzea eta egokitzea.
- EI1.7 Baldintza eta helburu zehatz batzuk finkatzen diren kasu praktikoa batean, zaldiz gidatzeko jarduerak baterako olgeta-jarduera hautatzea, denbora zehaztea eta haien sekuentzia egitea.
- A2: Olgetako, sentsibilizazio eta ingurunea ezagutzeko askotariko jarduerak dinamizatzeko, olgeta-metodologia aplikatuz eta askotariko helburuetara eta parte-hartzaileen eta jarduerak egingo diren ingurunearen ezaugarri, interes eta/edo premietara egokituz.
- EI2.1 Olgeta-metodologia propioa identifikatzea eta haren erabilera justifikatzea jarduerak animazio eta hainbat kasutan.
- EI2.2 Kasu praktikoa batean, instalazioak, baliabideak eta materialak aztertzea eta pertsonetara eta aurreikusitako helburuetara egokitzea, erabilera-parametro egokiak ziurtatuz.
- EI2.3 Hainbat jolasetan erabiltzaile gisa jokatzeko duten kideez osatutako talde bat zuzentzea.
- EI2.4 Jolasaren garapena eta arauak azaltzea, informazio nahikoa, argia, motibatzailea, sekuentziatua eta ordenatua emanez, eta alderdirik garrantzikoak nabarmentzea:
- Behar adina erakustaldi egitea.
 - Jolasa parte-hartzaileetara egokitzea.
 - Jolasaren garapenean gorabeherak hautematea eta konpontzea.
 - Parte-hartzea sustatzea.
- EI2.5 Jarduerak azaltzean eta/edo animatzean, prozesua azaltzea, taldearen harremanak dinamizatzeko eta helburuak lortzeko, hartutako erabakiak justifikatuz.
- EI2.6 Jardueretan desinhibizioz parte hartzea.
- EI2.7 Jolasak zuzentzean kide baten esku-hartzea aztertzea, akatsak hautematea, eta akats horiek konpontzeko proposamenak egitea.
- A3: Autonomia pertsonala mugatua duten pertsonen ezaugarriak eta zaldi-ibilbideetan gidatzeko jarduerari dagokionez egin beharreko espazio-egokitzapenak identifikatzea.
- EI3.1 Autonomia pertsonala mugatua duten pertsonen ezaugarriak adierazgarrienak deskribatzea.

EI3.2 Autonomia pertsonala nolabait mugatua duten pertsonak esfortzura egokitzearen, beroketaren eta indarberritzearen berezitasunak adieraztea, eta zaldi-ibilbideak egiteko kontraindikazioak azaltzea.

EI3.3 Zaldi-ibilbideetan gidatzeko jarduerak egiten diren bitartean autonomia pertsonala mugatua duten pertsonekin tratu eraginkorra izateko jarraibiderik egokienak deskribatzea.

EI3.4 Autonomia pertsonala mugatua duen pertsonaren ezaugarriak ondo definituak dituen kasu praktiko batean oinarrituta:

- Zaldiz kirola egiteko pertsonak modu autonomoan edo laguntzarekin mugitzeko duen aukera baloratzea.
- Beharrezkoak diren zainketa espezifikokoak adieraztea.
- Izan litezkeen arriskuak eta sor litezkeen larrialdiak konpontzeko modua adieraztea.

EI3.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan balizko jarduera-egoera batean, txosten bat lantzea, eta, han, autonomia pertsonala mugatua duten pertsonak aurreikusi diren helburuak lortzeko egin behar diren egokitzapenak deskribatzea.

EI3.6 Aldez aurretik planifikatutako zaldiz gidatzeko jarduera bat abiapuntutzat hartuta, hainbat alderdi aldatzea (ibilbidea eta jarduerak), autonomia pertsonala mugatua duten parte-hartzaileek egiteko aukera izan dezaten.

EI3.7 Autonomia pertsonala mugatua duen pertsonak dauden talde baten ezaugarriak definitzen dituen kasu batean, materialean eta instalazioetan egin behar diren egokitzapenak proposatzea eta egitea.

Edukiak

1. Zaldiz gidatzeko jardueretako erabiltzaileen aisiarako olgeta-jarduerak prestatzea.

- Olgeta: pertsonarentzat duen garrantzia.
- Olgeta-jarduerak eta jolasak: Kontzeptua, funtzioak eta teoria orokorrak.
- Ezaugarriak, aplikagarritasuna eta sailkapena.
- Olgeta-jarduera motak.
 - Helburuak.
 - Ezaugarriak.
 - Metodologia.
- Adin eta helburu jakin batzuetarako jolasak hautatzea.
- Olgeta-jarduerak hautatzea, denbora zehaztea eta sekuentziaztea.
- Desinhibizioz parte hartzea.
- Jolasen erregistroa. Jolas-fitxak lantzea.
- Olgeta-saioak programatzea.
- Gau-jaiak. Esku hartzeko baliabideak.

2. Olgeta-jardueren dinamizazioa:

- Gidak animatzaile gisa esku hartzea.
- Jarduerak zuzentzea: azaltzea, erakustea, eta parte-hartzaileak, tokiak eta materiala antolatzea.
- Jarduera egiten esku hartzea: errefortzuak, emaitzen berri izatea, gorabeherak konpontzea eta jarduera ebaluatzea.
- Jarduera amaitzea.
- Jarduera-zuzendaritzari behatzeko eta hura aztertzeke eta baloratzeko teknikak.

3. Autonomia pertsonala mugatua duten erabiltzaileen ezaugarriak ezagutzea:

- Zaldiz kirola egitean pertsonak duen mugitzeko aukera.
- Zainketa espezifikokoak.
- Izan litezkeen arriskuak.
- Autonomia pertsonala mugatua duten pertsonak naturaltasunez tratatzea:
 - Pertsonen arteko harremanak optimizatzeko jarraibideak.
 - Pertsona horien ezaugarri psikoafektiboan oinarritako alderdiak.
 - Pertsona horiek autonomia lortzeko bidean behar dituzten laguntzak.
 - Kontsignak eta azalpenak egokitzea.

4. Jarduerak autonomia pertsonala mugatua duten pertsonetara egokitzea:

- Autonomia eta mugak baloratzea.
- Autonomia pertsonala mugatua duten pertsonen esfortzura, beroketetara eta indarberritzera egokitzea.
- Zaldiz egiteko ibilbideetako jarduerak gauzatzeko dituen kontraindikazioak.
- Zaldi-ibilbideetan egiten diren jarduerak dituzten onura fisikoak, psikikoak eta sozialak.
- Zaldi-ibilbideetan gidatzeko jarduerak gauzatzeko ekipamenduak, materialak eta laguntza teknikoak egokitzea.
- Autonomia pertsonala mugatua duten pertsonak ingurune naturalean mugitzeari eta garraiatzeari buruzko transferentziak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaindituak izan behar ditu UF0836 Ingurune naturalean zaldiz kirol-jarduera egitea eta UF1501 Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida.